


Erraldoien elkarretaratze handia

Gran concentración de gigantes



11150n II 2013-04

Ekainak 29 de junio



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIÁN

200 erraldoik eta buruhandik Donostiako kaleak musikaz eta kolorez beteko dituzte, hirian azken 200 urteotan eman diren aurrerapauso handien iradokitzeko

11:30etik aurrera abiatuko dira Donostiako erdialdean barrena; eguerdian Bulebarrean bildu eta bertan denek elkarrekin “Artillero dale fuego” dantzatuko dute

Hainbat bazterretatik etorritako 200 erraldoi eta buruhandi lehen aldiz batuko dira gure hirian, **larunbatean, ekainak 29**, Donostiaren erreketeta, suntsipen eta ondorengo berreraikuntzaren Bigarren Mendeurrena dela eta.

Proiektu handiak ahalegin txiki edo apaletatik abiatzen dira beti. 1813an txikitutako hiri hau, baliabiderik gabe eta apaldurik bazegoen ere, gai izan zen bere mugak gainditzeko, bere burua garatzeko eta bere ametsak egia bihurtzeko, betiere konprometitutako herrikide lagunkideen ahalegin txiki eta handiei esker; izan ere, poliki-poliki, erronkei ausardiaz eta adorez aurre eginda, asmatu egin zuten nola gauzatu beren ametsak, nola berenganatu lorpen handiak, hala nola hiri solidarioago eta zuzenago, libreago eta berdinago, iraunkorrago den hau, 2016ko Kulturaren Europako Hiriburu den hau.

Desfilearen hasiera, 11:30ean

Itzurun, Donostiako erraldoi eta buruhandien konpartsa, izango da elkarretaratzearen anfitrioi. Elkarretaratzea 11:30ean hasiko da, hiru zutabetan, Bilbo plazatik, Santa Katalina plazatik eta Loiola kaletik bana abiatuko baitira. 200 inguru dira pertsonaiak, Donostiako kaleetan barrena desfilatu eta 12:00ak aldera Bilbo plazaren eta Bulebarrean arteko oinezkoen ardatzean bilduko direnak. 12:45ean, Bulebarrean, *Artillero dale fuego* kanta herrikoia elkarrekin dantzatuko dute. Horrez gain, konpartsa bakoitzak bere txaranga eramango du, ibilbidea girotzearren.

Denak batera abiatuko dira Bulebarretik Alde Zaharrera, Abuztuaren 31 kaleraino, 1813an hiria txikitu zutenean zutik iraun zuen kale bakarra delako Bigarren Mendeurrenaren leku sinbolikoa baita. Gerora, konpartsek lagunarteko bazkariak gozatuko dute Zuloaga plazan. Pertsonaiak ere hantxe egongo dira ikusgai, plazara hurbiltzen diren guztiek konpartsen joritasun koloretsua bertatik bertara ezagutzeko parada izan dezaten.

Desfilea dela eta, **trafikoa eten egingo da Bulebarrean 12:00etatik 13:30era arte.**



PROGRAMA

Larunbatean, ekainak 29

- 11:30ean Elkarretaratzea Loiola kalean: Azpeitia, Bergara, Irun, Deba, Irrintzi, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Errenteria, Ostargi, Añorga.
- 11:30ean Elkarretaratzea Bilbo plazan: Bilbo, Barakaldo+Trapagaran, Urduña+Amurrio, Areatza, Legazpi, Buñuel, Cintruenigo, Perrinche, Lodosa+Sartaguda, Ablitas.
- 11:30ean Elkarretaratzea Santa Katalina plazan: Itzurun, Gasteiz, Basurtu, Bermeo, Zarautz, Hondarribia, Tuter+Cabanillas, Lizarra, Larrotxapea, Irurtzun, Ejea+Biota, Baiona.
- 12:00etan Konpartsa partaideen bilkura Bilbo plaza - Bulebar oinezkoen ardatzean.
- 12:45ean Konpartsa partaideen emanaldi bateratua Bulebarrean.
- 13:30ean Konpartsa partaideen emanaldi bateratua Abuztuaren 31 kalean.
- 14:30ean Konpartsa partaideentzako bazkaria Zuloaga plazan.
- 14:30 -16:30 Erraldoi guztiak Zuloaga plazan ikusgai egongo dira.